



Gipuzkoako X. Sagardo Lehiaketan 34 ekizleek hartu zuten parte. Hiru finalistek karreto-barrikaren erreproduzio bana jaso zuten.

JMM

Eraitza estua X. Sagardo Lehiaketan

Puntu batekoa, lehen hiru sailkatuen arteko aldea

ttor Lizeagak, Gartziategi sagardotegiko jabeak, 1.500 euro eta Jose Frantzisko Iribarrek, Oianumeoak 750 euro. Lehen hiru sailkatu horietako bakoitzak karreto-barrikaren erreproduzio bana ere jaso zuen.

Lehiaketa honetan parte hartzeko hiru baldintza betetzea ezinbestekoa dute sagardo ekizleek: Gipuzkoan kokatuta egotea, Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza Industrien Erroldan alta emanda egotea, eta botilaratzaile agria izatea.

ARAUAK EZTABAIDAN

Bodegatik luginak hartzeko antolatzaileek erabiltzen duten sistema gero eta eztabaidagarriagoa da kalean. Batzuen ustez, lehiaketak ez du, azken batean, sagardo onena saritzen. Egund, bodega bakoitzetik lugin batzuk hartzen dituzte, sagardotegiaren tamainaren arabera, eta ondoren, zoketa bidez erabakitzen dute horietako zein sagardo-lagin izango den lehiaketan parte hartuko duena. Esaterako, hiru luginen artean, agian, sagardogileari txapelketarako gutxien gustatzen zaiona aukeratzeko gerta liteke.

Hori da zozketaren arriskua. Ez dira lehiatuko sagardo onenen artean, zozketak erabakitzaileen artean baizik. Nolanahi ere, aldatzen ez diren bitartean, txapelketaren arauak edo baldintzek horrela jarraituko dute Gipuzkoako Aldundiak antolatzen duen sagardo lehiaketan. Hala ere, txapelketa hau oso garrantzitsua da sagardogileentzat, irabazten duenarentzat batez ere. Bere seriotasuna eta ematen duen prestigioa nabariak eta eztabaidaezinak dira. Ziur asko hurrengo edizioan ere ekizle asko aurkeztuko dira.

SETIEN

SIDRAS - SAGARDOAK



Gurutzeta Berri • URNIETA • Tfno. 943 55 10 14

OYARBIDE

SAGARDOAK

Sebastian Zabalegi



Tfnoa: 943 55 31 99 • ASTIGARRAGA

Oso estua izan zen sailkapena Gipuzkoako Aldundiak urtero antolatzen duen azken lehiaketan.

Txapelduna, Astigarragako Alorrene sagardotegiaren izan zen, eta ondoko postuetan Astigarragako Gartziategi eta Urnieta Oianume sailkatu ziren. Aipagarria da hiruren artean, batetik bestera puntu erdiko aldea baino ez zela egon.

Udaberria amaitzen denean, Gipuzkoako Aldundiak urtero antolatzen duen sagardo lehiaketaren erabakia jakinarazten du Donostiatik. Alde Zaharreko bihotzean, Urgull mendiaren magalean, Gastronomiaren Euskal Kofradiaren egoitzan azken fasea eginez, sei sagardoren artean erabakitzen dute nor den txapelduna.

X. Sagardo Lehiaketan Astigarragako Alorrene izan zen irabazlea. Lehenengo aldiz sartu zen finalistaren artean, eta jasotako 74 puntuei esker eraman zuen txapela. Gauza bera esan daiteke hirugarren postua lortu zuen Urnieta Oianume sagardotegiari buruz, honek 73 puntu jaso zituen. Aipatutako bi sagardotegi horien artean, bigarren postuan, sagardotegi klasiko bat, herrial-

deko zaharrenetako bat sailkatu zen, Astigarragako Gartziategi, 73,5 punturekin. Gartziategiok badakite zer den irabazle izatea, bi aldiz txapela etxera eramatea lortu baitute.

Beste hiru finalistak, Astigarragako Larrarte, Urnieta Eula eta Adunako Zabala sagardotegiak izan ziren, baina antolatzaileek ez zuten zabalduta horien puntuazioa, ezta sailkapena ere.

Azken edizioan 34 sagardo ekizleek hartu zuten parte, hamahiru herritakoak, hots: Astigarragatik 8; Hernanitik 6; Urnieta 3; Usurbildik 3; Andoaindik 2; Oiarzundik 2, eta Abaltzisketa, Aduna, Aia, Asteasu, Ikaztegieta, Irun, Donostia, Tolosa, Zerain eta Zestatik bana; beraz, herri desberdinetako partaideak izan ziren. Gipuzkoako sagardoa herrialde osoan dago zabalduta nahiz eta Donostialdean aurkitzen diren sagardotegi gehienak.

Txapela eta garaikurrak Donostian bertan banatu zituzten ekainean, baina diplomak eta diru sariak jasotzeko Igartubelti baserri-museora joan behar izan zuten urrian, hango Sagardo Asteari hasiera emateko. Alorrene sagardotegiko Jaber Mariezkurren 2.500 euro jaso zituen; Bi-